


Iceberg Programa



Nork hartzen ditu nire
erabakiak?

HELBURUAK

- Ikasleek pentsatzea eta konturatzea zeinen garrantzitsua den gizakion garapenerako beste gizaki batzuekin erlazionatzea eta taldegiroan haztea.
- Ikasleak konturatzea talde bateko kide izateak abantailak eta eragozpenak dituela (esate baterako, batzuetan amore eman beharra, negoziatu beharra): "nik hau egingo dut, zuk hori egiten baduzu".
- Ikasleek presio-egoerak bizitzea, zeinetan taldeak (eta/edo taldekideek) estutu egiten gaitu(zt)en ekintza jakin batzuk egiteko.
- Ikasleak gai izatea bereizteko zer egoeratan komeni zaigun amore ematea eta zer egoeratan egiten digun kalte

METODOLOGIA

Jarduera hau egiteko, fitxa bana emango diegu ikasleei, eta, fitxa bete ondoren, talde txikietan banatuko ditugu, egin dutena denen artean komentatzeko.

Azkenik, ondorio batzuk atera beharko dituzte, eta talde bakoitzak arbelean idatziko ditu ondoriook.



NORK HARTZEN DITU NIRE ERABAKIAK?

Erantzun itzazu esaldi hauek bakarka:

Lagunen batekin arazo bat badut, honi esaten diot:



Nire oporrak honen mende daude:



Arropa erosten dudanean, honetan pentsatzen dut:



Ikasketetan arazo bat baldin badut, honi esaten diot:



Norbaitez maitemintzen banaiz, honi esaten diot:



Oso gogoko dut (zure hobby bat), zeren eta...:





**Egin nahi ez dudan zerbait egiteko estutzen banaute,
honela erreakzionatzen dut:**




Orain, taldeka antolatuta, komentatu zuen esaldiak, eta atera ondorio batzuk:

ONDORIOAK:



Bukatzeko hurrengoko bideoa ikusi: “Te atreves a soñar”.



https://www.youtube.com/watch?v=i07qz_6Mk7g

Informazio gehiagorako:

www.info@sasoiaprevención.com